

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3489

AGINDUA, 2016ko uztailaren 26koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinarekin ebazten baitira 2016ko ekitaldiko Euskal Merkataritzako Sariak.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko martxoaren 16ko Agindua 9. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (2011ko martxoaren 28ko EHAA, 60. zk.), zeinen bidez arautzen baitira Euskal Merkataritzako Sariak; ikusirik Merkataritzako zuzendariaren 2016ko apirilaren 21eko Ebazpena (2016ko maiatzaren 18ko EHAA, 93. zk.), zeinen bidez argitara ematen baita 2016ko ekitaldiko Euskal Merkataritzako Sariak emateko deialdia, eta horretarako izendatutako Epaimahai Kalifikatzailearen proposamena ezaguturik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— 2016ko ekitaldiko Euskal Merkataritzako Sariak ematea, kategoria bakoitzean, honako hauei:

- Enpresa lankidetzak: Mamia.
- Merkataritza berrikuntza: Pastelerías Aramendia.
- Lanbide ibilbidea: Gerardo González Baragaña, BOXen sortze-lanetako burua eta jabetariko bat.
- Hiri-inguruneen dinamizazioa: La Moderna Urdaitegi Alemaniarra.

Bigarrena.— 2011ko martxoaren 16ko Aginduan ezarritakoarekin bat, onuradunek aipamen edo errekonozimendu publikoa jasoko dute, hartarako deitutako ekitaldian.

AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren aurrean, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 26a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.